



Loreto Mauleón y Cayetana Guillén Cuervo cumplieron con su misión: convencernos de ver cine a oscuras.

ALEXABRIL

Filmak areto ilunetan eta pantaila handian

Galaren hasieran bideo bat proiektatu da, duela gutxi hil diren eta Zinemaldiaren historiarekin lotura estua zuten lau lagun omentzeko: Diego Galán, Zinemaldiko zuzendari izandakoa; Luis Calparsoro, ordezkari nagusi ohia; Mariano Ferrer, prentsa-arduradun gisa jardundakoa; eta Juanmi Gutiérrez, errealizadorea eta bere film guztiak lehiaketan aurkeztu zituen.

Filmak areto ilunetan eta pantaila handian, distrakziorik gabe gozatzeko eta ikusleak omentzeko nahia izan dira irekiera garaiko inspirazio-iturri. Hala, Cayetana Guillén Cuervok eta Loreto Mauleónek aurkeztu dute ekitaldia. Halaber, bi ikusle mota omendu dituzte inaugurazioan: alde batetik, Zinemaldiko saioak betetzen dituzten ikusle arruntak; eta bestetik, kritikariak eta zinema kazetariak.

Urtero bezala, FIPRESCI bere Sari Nagusia eman du inaugurazio-galan. Aurten, Alfonso Cuarónen *Roma* filma izan da irabazlea. Gabriela Rodríguez produktoreak jaso du saria, Kataluniako Zinemagintzako Kritika eta Idazketa Elkarte (ACCEC) presidente Marta Armengouren eskutik.

Ekitaldian omenaldia egin zaie zinemako generoei ere. Askotariko irudiak proiektatu dira: komediak, thrillerrak, fantasia eta beldurrezko filmak, dramak eta zinema sozial eta politikoko sekuentziak. Bideoak aurkezten izan dira Javier Calvo eta Javier Ambrossi (Los Javis goitizenez ezagunak), Leticia Dolera zuzendari eta aktorea eta Paul Urkijo zinemagilea.

Jarraian, Neil Jordanek hitz batzuk esan ditu epaimahai ofizialeko presidente gisa. "Uste dut datozen egunetan geure buruari betiko galdera egin beharko diogula: Zer da zinema? Nire ustez, erantzuna sinplea da. Areto ilun batean ezezagunez inguratuta eseri, eta beste norbaiten ametsak pantailan ikusten duzunean bizi duzuna da zinema". Zinemagile irlandarrarekin batera oholtzan agertu dira Bárbara Lennie eta Mercedes Morán aktoreak, Pablo Cruz eta Katriel Schori errealizadoreak eta Lisabi Fridell argazki-zuzendaria.

Azkenik, Roger Michell zuzendariak, David Bernardi ekoizleak eta Sam Neill aktoreak *Blackbird* aurkeztu dute, hain zuzen ere, Sail Ofiziala abiarazi duen filma.

Apaguen las luces, vamos a ver cine

Un pertinente y acertado *in memoriam* a Diego Galán, Mariano Ferrer, Juanmi Gutiérrez y Luis Calparsoro, en el que recordaban los tiempos en los que el Zinemaldia se abrió al público y creció hasta lo que es hoy, dio inicio a la gala de inauguración de la 67 edición del Festival.

Posteriormente, las presentadoras de esta edición, Cayetana Guillén Cuervo y Loreto Mauleón, salieron a escena con un firme objetivo: "convencernos de que no hay mayor placer que ver una película en la oscuridad de una sala de cine sin prestar atención a otras pantallas como el móvil o la tablet".

Para ello, tanto las presentadoras como el resto de invitados de la gala, e incluso espectadores a través de un montaje audiovisual, reivindicaron los géneros cinematográficos. Un tipo de cine que tradicionalmente ha sido denostado por la crítica 'más seria' pero que cada vez tiene más presencia en festivales como el de San Sebastián.

Javier Calvo y Javier Ambrossi, 'Los Javis', fueron los encargados de ensalzar la comedia. "Parece fácil pero no hay nada más difícil

que hacer reír", dijeron. La realizadora y actriz Leticia Dolera elogió los thrillers y Paul Urkijo, director de *Errementari*, el cine fantástico y de terror. "Porque nos conciencia y no pasa de moda", Guillén Cuervo defendió el drama y el cine social, y Mauleón recordó la existencia de un interesantísimo cine vasco de autor.

Cada una de estas alocuciones fueron acompañadas por vídeos que recogían escenas de las mejores películas españolas en dichos géneros. "Qué gozada, dan ganas de volver a visitar todas", opinó Guillén Cuervo.

El cineasta irlandés Neil Jordan, acompañado del resto del jurado, quiso sumarse a la tesis de la velada y en su discurso declaró que, en su opinión, "el cine significa estar a oscuras en una sala rodeado de desconocidos viendo en una gran pantalla algo que alguien soñó".

La gala también sirvió para entregar el Premio FIPRESCI a la película *Roma* de Alfonso Cuarón y para presentar *Blackbird*, película que posteriormente veríamos, cómo no, en la oscuridad del Kursaal, rodeados de desconocidos y sin mirar el móvil.